

Aretxagazeta


ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Erretiratuendako
ortuak Torrebaso /09**

OSPAKIZUNA
**Haitzorrotz egunari
errepaso /09**

LEINTZ GATZAGA
**2004ko
udal aurrekontua /10**



JESUS ATXA

**EUSKO IKASKUNTZAK EMATEN DUEN
MANUEL LEKUONA SARIA
JASOKO DU, BIHAR, ARETXABALETARRAK**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 8
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 9
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskalgia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

SINADURA BATZEA
Bihar bukatuko dute Europako hauteskundeetan parte hartzeko Herritarren Zerrenda taldeak deitutako sinadura batzea; 11:30etik 13:30era batuko dituzte.

GAIXOAREN GAINEKO HITZALDIA
Gaixoa amodioz hartzea
leloa duen hitzaldia egingo du Victoria Irigarayk maiatzaren 12an, eguazte-
na, 19:30ean, parrokiako lokaletan.

BEROAKO BIZILAGUNEK BATZARRA
Beroa guneko bizilagunek batzarra egingo dute eguaz-
tenean, hilak 12, 18:30ean, udaletxeko ganbaran. Az-
ken pausuen berri emango diete, eta aurrerantzean zer egin erabakiko da.

'ARRAUTZA DELIKATUAK' ANTZEZLANA
Maiatzaren 13an, eguena, *Arrautza delikatuak* antzezlana eskainiko dute Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi aktoreek. Udale-
txe zaharrea izango da, 19:00etan.

ERROMESALDIA LOURDESERA
Elizbarrutiak antolatuta Lourdesera erromesaldia egingo dute maiatzaren 21etik 24ra bitartean. Eguneko erromesaldia, ostera, maiatzaren 22an izango da.

LORAMENDIRENAGENDA

LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA
Loramendi EEk lan poltza osatu gura du epe laburrera egingo duten hautaketa prozesurako. Curriculumak Aretxabaletako Durana 11ko lokalera ekarri.

MATXINEN BAKARRIZKETA
Matxinek bakarrizketa umoretsua eskainiko du maiatzaren 14an, 22:30ean, Ezkutu tabernan.

ORAINDELA 11URTEARETXABALETAN

V. belar-zilo erakusketa egin zuten Aretxabaletan

Euskal Autonomia Erkidegoko V. Zilogintza Erakusketa egin zuten Aretxabaletan, Arientza-Etxebarri elkartek antolatuta. Belarra gordetzeko erabiltzen zuen lan sistema erakutsi gura izan zien elkartek beste baserritar batzuei: bolak zela egiten zituzten eta artoa ereiteko sistema, hain zuzen.




BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zuldarra"

Adoleszentzian gaztetxoei irten ohi zaizkien garauak.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Izaro Iñurrategi
Apirilaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



MENDIOLA
Santi Arkauz
Maiatzaren 1ean. Zorionak eta muxu handi bat, aitaita! Iloba guztien partetik.



ARETXABALETA
Danel Luengo
7an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Maialen Diez
7an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Uxue Olabe
8an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Oier Aizpurua
12an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Miren Zubillaga
12an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA



BASAJAUNEN KONDAIRA


Ibaizabal, 2003
CD-ROM

Basajaunen kondaira bideojokoa da. Mitologiako pertsonaiak oinarri hartuta, euskara, literatura, historia, geografia eta arteari buruzko galderen jokoa da. Jokalari bakarra edo lau izan daitezke parte-hartzaileak. Bakoitzak pertsonaia bat aukeratu eta bere edabe magikoaren osagaiak lortu behar ditu sorginaren sorginkeriarri ihes egiteko. Osagaiak lortzean etxera itzuli behar du edabe magikoa egitera. Euskal Herriko mapan dabilta pertsonaiak, dado batekin, eta test itxurako galderei erantzunez aurrera egingo dute. 12 eta 16 urte arteko gazteei zuzendua dago.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru Guarda pasealekua 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05
www.mirvat.com




ATREBENTZIAEZPADA/ Gustora zauz Aretxabaletako osasun etxiek emuten dittuen zerbitzuekin?




MARIA PAVON
Langillie

Bai, bai, gaur artien ez dot sekule arazorik euki, eta oso gustora nau. Ointxe noie, hain justu be, galderatxo bat egittera medikuei, eta ez dot pentsetan pegarik jarriko dustenik.




LUIS MANUEL CEBRINO
Jubilaue

Bai, bai, oso gustora, ez dot sekule arazorik euki-eta. Bai harrerakuek, bai medikuek oso jente jatorra die-la pentsetan jat, eta nik neuk, behintzet, ez dauket bape kejarik.




MARI ASUN ARKAUZ
Jubilaue

Bueno, hobetu ahal izengo litzakela pentsetan jat. Medikuen aldetik bai zerbitzue, bai jarrerie hobetu leikiela uste dot, batez be pertsona nagusixekin; hori entzuten dot behintzet.




JUAN RAMON MIGUEL
Langillie

Bai, pozik nau; bai zerbitzuek, bai informaziñue egoki emuten dauela uste dot. Epe luzera begire tratamēntue biher dotena naz, gaiñera, eta ez dot sekule arazorik euki.



ARANTXA PELLICER
Langillie


Bai, herrixen barrixe naz baiñe oingoz ez dot arazorik euki. Umiek erueten dittut toketan jakuenien, eta ondo hartu naue. Ospitaletan euki dittut arazo batzuk, baiñe hamen ez.



PABLO PASTOR
Langillie

Oso gustora, nik neuk ez dot sekule ibilli-eta. Lehengo baten alabiei lagunketan fan nitzen, eta oso ondo hartu gintuen. Nik suertie izen dot, eta ondiokan nere fitxarik be ez daukie.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK XAKEA ORAIN EZ DA KIROLA? Xakea kirolen sailetik kendu gura du Eusko Jaurlaritzak. Aretxabaletako xake jokariak, gainerakoekin batera, oso kezkatuta daude; izan ere, zer dela eta orain ez da kirola? Hori horrela, sinadura bilketa egiteko orriak jarriko dituzte hainbat tabernatan, eta herriko kirol zinegotzi eta teknikariarekin egin gura dute berba horren gainean. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Arizmendi ikastola

Gune berria zabalduko du irailean Arizmendi ikastolak Aretxabaletako Mitarte kalean.

ASTEAN BEHIN /05

Jesus Atxari saria

Manuel Lekuona saria jasoko du Jesus Atxak bihar, Iruñean, Eusko Ikaskuntzaren eskutik.

KIROLAK /06

Nesken futbol taldea

Partidu bi falta zaizkie Kopa Txapelketa bukatzeko. Ez dute lortuko, baina denboraldi bikaina egin dute.

ASTEKODATUA

40

GAZTEK EMAN DUTE IZENA BEGIRALE IZATEKO


Kultura Sailak uztailean antolaten dituen udaleku irekietan begirale izateko 40 gaztek eman dute izena. Arduradunek nahikoa direla esan dute; izan ere, 200 ume inguru elkartu izan dira.

BESTEKEESANA

“ Gabonetan hasten gara apurka-apurka Debagoieneko Triatlloi Txapelketa prestatzen, eta ibilbidea garai honetan zehazten dugu. Normalean aurreko urteetako hartzen dugu oinarritzat eta gero aldaketaren bat edo beste egiten dugu. Aurten ere antzeko ibilbidea izango du. Urkulun igeri proba egingo dugu, eta ikusgarriagoa egiteko aurten erabaki dugu igeriketa ibilbidea beste era batera antolatzeari. Ikusleen aurrean izango da saio guztia, eta ikusgarritasuna handiago izateko, gainera, lehenengo 500 metro egin, gero uretatik atera eta berriz sartuko dira beste 1.000 metro igeri egitera. Normalean Euskadiko Triatlloi Txapelketatan ez da horrela egiten, eta guk sartuko dugun berezitasuna izango da.

ASIER BARRAINKUA
Arrasate Irratia/04-05-03

HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



Otala Zelai

Laster Otala Zelai eguna ospatuko dugu aretxabaletarrok. Eguraldiak lagunduz gero, egun zoragarria izaten da, edo niri behintzat hala iruditu izan zait beti: haur jolasak, dantzak, kantuak, bazkaria... Giro aparta benetan.

Hau bezala hainbat jai izaten dira, bai gurean nola inguruko herrietan, zein Euskal Herri osoan ere. Ohiturazkoak batzuk: Otala Zelaikoa bezala Kurtzebarri edo Atxorrotz egunak kasu. Jaia errebindikazioaz uztartzen da beste batzuetan. Hala nola Euskararen Eguna, Herri Urrats, Eskola Publikoaren jai, etab.

Baina guztietan, badira bi gauza neure iritziz behintzat egun horiek hain berezi egiten dituztenak. Bata, hainbat jende egoten dela borondatezko lana egiteko gertu. Eta hau, bizi dugun gizarte egoista honetan benetan eskertzekoa eta indartzekoa da. Eta bestea, bertan ematen den elkar bizitza ia eredugarria. Gure ezberdintasunak alde batera utzirik helburu berdina-

ren alde (errebindikazioa zein jaia bera) jartzen ditugu gure indarrak. Eta lortu egiten dugu.

Posible dugu beraz, elkar lagunduz gauzak egitea. Eta egiten ere badakigu, jai giroan behintzat. Ezin izango dugu espiritu berbera bizitzaren beste arlotara ere eraman? Ahaleginak egin

“Herriarekiko maitasuna atseginez, eta ez atsekabez beterikoa dela hauteman beharko genuke”

izan direnean, ez dute, egia esan, fruitu ugaririk eman, baina bai itxaropen handiak sortu, eta behar bada horrek esan nahi du ez dela hain bide txarra.

Nola egin hortaz? Agian, Euskal Herriak eskatzen dizkigun lanak, karga eta

neketzat hartu beharrean, jai gaitzat hartu beharko genituzke, eta ondorioz, egin beharrekoari alaiki ekin. Herriarekiko maitasuna atseginez, eta ez atsekabez beterikoa dela hauteman beharko genuke. Akaso horrela ados jartzeko gauza izango ginatke, eta behingoz gurdi honi denok norabide berean tiratzen hasi.

Beraz, Lizarra-Garaziko espirituak kale egin bazigun, ahalegindu gaitzen Otala Zelaikoaz. Eta ondo pasau!!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Zein da Jesus Atxa?

Ez dakit askok ezautuko dauien herrixen Jesus Atxa. Nik, neuk, ez; akaso naugusiren batek edo bestek. Baiñe Aretxabaletan jaixo zan, eta ez dauko herrixen saltzeko. ARETXAGAZETAko lagunek esan dustie berba politte izen dittuela beti gure herriko kontuetaz dabilienien. Izen be, oin hiru urte egon zan azkenengo aldiz aldizkari-ko lokalien, eta elkarrizketie egitteko aukerie izen euien. Jesus Peñaren gaineko liburue argitaratu euien orduan, eta bera be lagunketan ibilli zan. Beti euskerien eta euskal kulturien alde lanien. Bixer Manuel Lekuona sarixe emungo dutzie Iruñan, bizi dan lekuen. Merezidute dauken seiñale; hortaz, zorionak!

Aipatu doten ekitaldi-reko gonbidapena eukiko dauena **Arritu Oliden** alkatie izengo da. Hala eta be, ez dakit joaterik izengo dauen, Paris aldien ibilli da-eta. Ez pentsau hirixe ezauketan joan danik, ez horixe, ezta Eurodisneyra be; lanera fan jaku. Udalak gobernatzeko erarekin zerikusia dauken kongresuren bat egon da antza danez. Bueltan etorri barri da, eta zer ikusi eta ikesi dauen galdetu biherko dutzau.

Gaurkoz besteik ez; baiñe fan aurretik, zu eitteko prest?

HEZKUNTZA/ Beroa eraikinean zabalduko duten honekin, Arizmendi ikastolak 10 kokapen ditu Leintz ibarrean

Arizmendi ikastolak gune berria zabalduko du datorren ikasturtean Aretxabaletan

MIRARI ALTUBE

Arizmendi ikastolak gune berria zabalduko du Aretxabaletan datorren ikasturtetik aurrera. 2 eta 6 urte arteko umeak hartuko dituzte bertan, eta Beroa lantegiko bulegoak egon ziren eraikinean izango du kokapena. Eraikinak oraindik ez dauka izenik.

Mitarte kalean zaharberritzen dabilzan eraikinean izango du Arizmendi ikastolak kokagunea. 2 eta 6 urte arteko umeak jasoko ditu bertan irailetik aurrera.


ZAHARBERRITUTAKO ERAIKINA

Santa Rita ikastetxeak atea itxi-ko ditu aurten. Agustindar erlijiosoen ardurapean egon diren umeak Arizmendi ikastolak jarri-ko duen gune berrira joango dira.

Kokapen berria Beroa lantegiak bulegoak izan zituen eraikinean dago, Legaiia enpresa egon zen lekuan. Goitik behera zaharberritu dute aipatutako eraikina, gaur egungo hezkuntza eskakizunetara behar bezala egokitze-ko.

INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

Gune berriak 1.410 metro koadro ditu eta instalazio modernoak bilduko ditu: igogailua, larrialdietarako irteera, elbarriendako



JUAN LUIS AZKARATE

Goitik behera zaharberritu dute eraikina, eta ikastetxe batek izan behar dituen instalaziorik modernoak izango ditu.

sarrera... Eskainiko dituen zerbitzuen artean sukaldea, psicomotrizitate-aretoa, Haurtxoteka edo haurrentako ikerketa eta dokumentazio zentroa, barruko jolastokia, aisialdirako tokiak eta

gurasoen eskola izango ditu, besteak beste. Eraikinak zortzi gela izango ditu, eta herriko 76 umek ikasiko dute. Gune berrian bi lerro izango dituzte, hau da, adin tarte bakoitzerako gela bi, eta

egutegi bi: bata eskolako ohikoa eta bestea urte osokoa.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala ikasturte berria hasterakoan egingo dute, eta orduan jakinaraziko dute gunearen izena.



Institutuko ikastaroetako ikasleei diplomak

Joan den egubakoitzean, diplomak banatu zizkieten lanerako prestakuntza ikastaroak bukatu dituztenei. Erreminten Mekanizazio eta Fabrikazio ikastaroa 12 ikaslek bukatu dute, Geriatria Laguntzaile ikastaroa 9k eta Galdaketa eta Erreminten Teknikari ikastaroa 9k. Eskoriatzako eta Aretxabaletako alkateak eta Itziar Etxebarria Lan Saileko teknikaria izan ziren. /M.A.

ANDRA MARI

Aholkularitza

Fiskala

Kontablea

Juridiko/laborala

2003ko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel. 943 79 29 26

SARIA/ Eusko Ikaskuntzak emango dio saria, euskararen alde egin duen lana eskertzeko

Manuel Lekuona saria jasoko du bihar Jesus Atxa aretxabaletarrak

MIRARI ALTUBE

Manuel Lekuona saria emango dio Eusko Ikaskuntzak bihar, maiatzak 8, Jesus Atxari. Aretxabaletan jaioa, gaztetan herritik alde egin eta han eta hemen ibilitakoa da Jesus. Euskararen alde lan handia egin du, eta orain, horixe eskertu gura diote.


Iruñean emango diote bihar saria. Euskararen eta euskal kulturaren alde urte askoan egindako lana eskertuko dio Eusko Ikaskuntzak.

ARETXABALETAN JAI OA

Aretxabaletan jaio zen Jesus orain dela 84 urte. Hala ere, gazte-gazte zela alde egin zuen herritik, lehenengo Durangora Jesuiten zuten ikastetxera, eta 36ko gerra hasi zenean Belgikara. Handik Kolonbiako hiribururantz egin zuen, Bogotara, nobiziatu berria zabaldu behar zutelako. Han jesuiten ikasketak utzi, eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Bogotatik Caracaserantz egin zuen gero, euskaldun gehiago zegoelako, eta 1945ean Euskal Herriara itzultzea erabaki zuen.

Ameriketatik itzuli ostean, Elorrión izan zuen bizilekua, eta 60ko hamarkadan euskarazko eskolak ematen hasi zen. 1964an Bilboko Edili kultur elkartera joan zen lanera. Handik aurrera ikastolen jarduna bultzatzen ibili zen Bizkai aldean.

1970ean, Iruñeko San Fermin ikastola zuzentzea eskatu zioten, eta horretan ibili zen 1984an erre-



ARTXIBOA

Orain hiru urte hurreratu zen Jesus azken aldiz ARETXAGAZETAra.

tiratu arte. Orduz gero Iruñean bizi da. Leku askotan ibilitakoa bada ere, beti esan izan du Aretxabaletan pasatako umetako oroitzapen gozoak dituela; oraindik aretxabaletar asko ditu gogoan.

BRONTZEZKO ESKULTURA

Manuel Lekuona saria 1983an hasi zen ematen Eusko Ikaskuntza, eta orduetik hona urtero sari-

tu ditu euskal kulturaren alde lanean dabilzanak. Saria jaso dutenen artean daude, besteak beste, Jorge Oteiza, 1996an, eta Jose Maria Jimeno Jurio, 1998an. Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskultura jasoko du bihar, zapatua, Jesusek, Iruñean egingo den ekitaldian; eta bere bio-bibliografia batuko duen liburua argitaratuko dute.

LABUR

Txakurren gaineko ordenantza eztabaidatuko dute asteleheneko ohiko osoko bilkuran

Astelehenean, maiatzak 10, ohiko osoko bilkura egingo du Aretxabaletako udalbatzak. Hainbat gai izango dituzte eztabaidatzeko, gehientsuenak hirigintzari dagozkionak: Tubos lantegi ostean etxebizitza sozialak egiteko behin betiko onarpena eta Erroterte osteko lurretan industrialdea egiteko egin beharreko aldaketak, esaterako. Hala ere, beste gai batzuk ere izango dituzte mahai gainean: txakurren gaineko ordenantza eta udazkenean onartu zituzten ordenantza fiskalen aldaketak, hain zuzen.

TXUTXU-MUTXUA



Bertsolariak Kurtzebarri eskolan

Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina bertsolari gazteak etorri ziren joan zen egubakoitz arratsaldean Kurtzebarri eskolara. Lan dezente egin behar izan zuten, gainera; izan ere, ikasle batzuek gaiak jarri zizkieten eta beste batzuek puntuak eman, gero bien artean bertsoak osatzeko. Dotore osatu zituzten, eta adi-adi entzun zizkieten abestutakoak eskolako areto nagusian batu ziren ikasle eta irakasleek. /M.A.

Ezkutu
TABERNA

ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Mortin
erloju-denda


Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA



EGUZKIGRAF

inprimategia

1979-2004

25. urteurrena

FUTBOLA

Mondraren aurka galdu ostean Kopa irabazteko aukera gutxi dute neskek

Oso denboraldi polita jokatu dute —entrenatzaile barik, gainera—, eta pozik daude

M.A.

Partidu bi besterik ez zaio falta emakumezkoen taldeari Kopa txapelketa bukatzeko. Oso ondo ibili dira, baina azken partidua galdu egin dute, eta aukera gutxi daukate Kopa irabazteko. Hala ere, giro ona izan da nagusi taldean, eta oso gustura daude egindako lanarekin.

Nesken futbol talde bi ditugu herrian. Batzuek futbol-8an jokatzen dute eta besteek, ohiko futboleant. Azken hauek denboraldi bikaina egin dute.

LEHENENGO LIGA ETA GERO KOPA

Denboraldia hasi zutenean ez zuten pentsatu ere egiten UDA/Almen taldeko neskek hain ondo ibiliko zirenik. Izan ere, iaiz hamar puntu bakarrik lortu zituzten. Aurten, ostera, 40 puntu lortu dituzte ligan eta sailkapeneko 5. postuan bukatu dute. Liga bukatu ostean, Kopa txapelketa jokatzen hasi ziren; ondo hasi ere. Joan zen aste bukaeran partidua gogorra jokatu zuten Mondraren kontra, eta 2-1 galdu zuten. Hori horrela, hirugarren daude sailkapenean 13 punturekin, baina dagoeneko aukera gutxi dute Kopa lortzeko, partidua bi bakarrik gelditzen zaizkielako txapelketa bukatzeko.

ENTRENATZAILE BARIK

15 eta 22 urte bitarteko neska horien ahaleginak meritu bikoitza



Lagun talde handia osatzen dute futboleant jokatzen duten herriko neskek.

dauka; izan ere, entrenatzaile barik egon dira denboraldi osoan. Jokin Antxia izan da taldearen arduraduna eta entrenamendu saioak gidatu dizkienak. "Datorren denboraldian izango dute entrenatzailea; oraindik ez dakigu nor, baina hainbat aukera aztertzen gabiltza", dio Jokinek. "Hala ere, garrantzitsuena taldean izan dugun giroa da; lagun talde handi bat da, eta elkarrekin futboleant jokatzen oso ondo pasatzen dute". Hauek gain, futbol-8ko taldea ere hor dago, hortaz, neskek ere poliki-poliki hasi dira futboleant aurrera egiten.

NESKA BI REALAREKIN

Herrietan hasi dira nesken futbol taldeak agertzen, eta antza denez Realak ere osatu gura du. Hori horrela, futboleant jokatzen duten neskekin entrenamendu saioak egiten dabil eta Aretxabaleako biri ere egin zien dei: Lur Delgadori eta Jenni Guerrerori. "Beroketa ariketa batzuk egin genituen lehenengo eta gero partidua jokatu", dio Lurrek. Interea izanez gero deituko die Realak, baina Lurren berbetan, ez dira dei horren zain egongo. Izan ere, gustura dabilta biak herriko futbol taldean.

PILOTA

Euskal Herri mailako Udaberri Txapelketa jokatzen hasi dira orain Errasti anaiak

Debarroko Pilota Txapelketa jokatzen dabilta Errasti anaiak, eta joan zen astean 22-8 irabazi zieten mondragoetarrei. Astelehenean izango dute hurrengo partidua Aloña-Mendiko pilotarien kontra, eta hauek ere aretxabaletarrei dira: Lasagabaster eta Altzola, hain zuzen. Eguaztenean, ostera, antzuolarrak izango dituzte aurrez aurre.

Debarroko Txapelketa bukatu aurretik, baina, Euskal Herri mailako Udaberri Pilota Txapelketa jokatzen hasi dira. Euskadiko Pilota Federazioak antolatu du, eta Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako bina bikote dabilta jokatzen. Aurreko astean Goierriko bikotearen kontra izan zuten partidua, eta 22-11 irabazi zieten. Zapatuan, Iruñeko Oberena elkarteko pilotariak izango dituzte aurrez aurre.

XAKEA

Manifestazioa egin zuten zapatuan Gasteizen, xakea kirola dela esateko Eusko Jaurlaritzari

San Viator xake taldeak antolatuta txapelketa egin zuten zapatuan, Gasteizen. Aitor Alcaide aretxabaletarrei hartu zuten parte Arrasateko taldearekin joanda. Xake txapelketaren erdian, ostera, manifestazioa egiteko atera ziren jokalaria eta jarraitzaileak. Lakuaraino joan ziren 300 bat lagun, eta Eusko Jaurlaritzari xakea kirola dela aldarrikatu gura izan zioten. Sinadura bilketa egiten ere badabilta.

Domekan, bestalde, beste txapelketa batean hartu zuten parte Gasteizen bertan Fran Miguel, Esteban Romero eta Aitor Alcaidek. Estebanek oso ondo jokatu zuen, eta 14. postuan bukatu zuen.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Hernani

Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Urola

Ohorezko gazteak.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Aloña Mendi

Seniorrak.
Astelehena. 20:00. Itugorri.
Aretxab.-Antzuola
Eguaztena. 20:00. Itugorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zarautz 2 UDA 2

Preferentea.
Mariano 5 UDA 2

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 1 Beti Gazte 0
Lehenengo mailako kadeteak.

Añorga 3 UDA 1

Bigarren mailako kadeteak.

Eibar 1 UDA 0

Ohorezko infantilak.

Ilintxa 4 Almen 1

Lehenengo mailako infantilak.

Mondra 2 Almen/UDA 1

Emakumezkoen liga.

Intxaurdi 5 UDA/Almen 1

Futbol 8 emakumezkoen liga.

PILOTA

Debarroko Pilota Txapelketa.

Aretxab. 22-Arrasate 8

Seniorrak.

Udaberri Pilota Txapelketa.

Aretxab. 22-Goierri 11

Seniorrak.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28



Matikua jatetsxea

Azataz auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:

**Soraya
Arquero**

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK


Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Telleria Baserriko Jaia

Arrasate

Keramikagileen
Topaketa

- zeramika erakusketak
- umeentzako tailerrak
- bideo emanaldia
- laba eraikuntza
- raku gava...




maiatzak
6-7-8
eta 9

-Antolatzen du:



-Babesleak:



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 7a / 165. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Hamabi erretiratuk Torrebasoko lurretan egokitutako partzelak eskuratu dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Astelehenean, Torrebasoan dauden 19 lursail zozketatu zituzten udaletxean. Eskoriatzako erretiratuek bertan ortuak egin ditzaten egokitu du tokia Udalak, horrela, beraien aisialdia betetzeko asmoz. Aspaldiko proiektua hasi da egikaritzen.

Eskoriatzako Udalak Almen gunearen gainaldean hiru lursail egokitu ditu. Ortuak eta txabola bat egin dituzte bertan. Astelehenean egin zen partzelen zozketa.

TORREBASOKO LURRETAN

Erretiratuen aisialdia betetzeko helburua du proiektu honek. Aspaldi proposatu zuen herriko Ezker Batua taldeak egitasmoa, eta azkenean, astelehenean, hilak 3, egin zuten udaletxean lurak esleitzeko zozketa.

Torrebasoko hiru lursailetan 19 partzela daude, eta bakoitzak 60 metro koadro ditu. Gainera, erretiratuek beraien tresnak uzteko toki baten premiaz jabetuta, Udalak txabola bat eraiki du lursail horietan. Txabolan, nork bere armairua izango du.



Almen gainaldean daude lurak, Torrebasoan. Udalak bost urtetarako utziko dizkie erretiratuei.

Ureztapena ez da oztopo izango herriko erretiratuentzat, ura partzela guztietara iristen da eta.

Zozketan parte hartu nahi zutenek martxoaren 31n izan

zuten izena emateko azken eguna. Hamabi lagun animatu ziren eta beraz, guztiek eskuratu dute lursail bat. Oraindik partzelak libre daudenez, izena emateko

epea luzatu egin dute, sail guztiak bete arte. Lurak bost urterako utziko dizkie Udalak, eta herriko erretiratuek ez dute trukean ezer ordaindu beharko.

Hemeretzi partzela eta txabola bat eraiki dituzte Almen gunearen gainaldean

Ortu guztiak neurri berekoak dira; bakoitzak 60 metro koadro ditu

Interesatuak izena eman dezakete oraindik; baldintza da herrian errondatuta egotea



Primeran, Salamancara egindako bidaiari

Eskoriatzako hainbat lagun Salamancara joan ziren apirilaren 24an Xabier Gomez parroko ohia bisitatzen. Eguraldia lagun izan zuten, eta oso ondo pasatu zuten. Hara iritsi, buelta bat eman, plaza nagusiko jatetxe batean bazkaldu eta arratsaldean turismoa egiteko trena hartu eta hiria ikusi zuten. Xabierren etxean ere egon ziren Jose Kruz, Luisito, Idoia, Nerea, Maria Angeles eta Floren, eta oso pozik itzuli ziren euren laguna bisitatzetik.

LABUR

Mankomunitateko zabor kamioiak industrialdean

Aste honetan ekarri dituzte Mankomunitateko kamioiak Eskoriatzako industrialdean hutsik dagoen pabilioi batera. Arrasaten dagoen Akeiko zabortegian errekueratze lanetan ari dira, hau da, kutsatutako lurak berreskuratzen. Osasunerako eta ingurumenarako dagoen arriskua erabat deuseztatu edo behintzat onartutako mailara jaitsi gura dute. Bi edo hiru hilabetez egongo dira pabilioian. Mankomunitateko langileen aldagelak ere egokitu dituzte egonaldiako.

ANTOLATZAILEEN ESANETAN, 500 LAGUN INGURU GERTURATU ZEN AITZORROTZERA

Aitzorrotz Egun arrakastatsua izan zen domekan ospatutakoa

Z.V.M.

Domekan Aitzorrotz Eguna ospatu zuten, eta jende ugari hartu zuen parte. Gazte eta heldu, asko izan ziren mendira igotzera animatu zirenak. Eguraldia lagun, bidean gora egin zuten.

Dirua baliatuko du Atxorrotz GKEk Hondurasen etxeak egiteko materiala erosteko

JENDE UGARI MENDIAN

Aitzorrotz Eguna iragartzen zuen diana izan zen goizean. Goizean goizetik, jendeak gorako bideari ekin zion. Goiztiarrek meza entzuteko aukera izan zuten behin goian egonda.

Beste askok, eguraldi ona aprobetxatuz, Aitzorrotzen magalean dagoen zelaian atsedean hartzen igaro zuten egonaldia. Bertan ezarritako karpan edariak eta txistorra-pintxoak hartzeko aukera, eta trikitilari eta bertsolarien doinuekin gozatzeko aukera izan zuten Aitzorrotzen zeudenean.

Bazirudien eguraldiak okerrera egingo zuela; hala, asko ez ziren fidatu, eta jaitzi egin ziren menditik bazkaltzeko. Beste batzuek, berriz, bertan bazkaldu zuten. Horren ondoren, Eskoria-

tzara jaitzi ziren asko. Bertan jarraitu zuen ospakizunak.

ARRATSALDEAN, GIRO ONA

Arratsalde partean Kaixo taldeak plazara hurbildutakoak dantzan jarri zituen. Bestalde, herritarrek eginiko patata-tortillak jateko aukera egon zen.

Mendiko karpan, bazkari txar-tekin eta patata-tortillekin bildutako dirua Atxorrotz GKE-arentzat eta Eskoriatzako gutxitu fisiko eta psikikoen taldearentzako izan da. Antolatzaileen esanetan, ondo joan zen ekimena, eta jendeak "uste bezala erantzun du aurtengoan ere", adierazi digute.



Bai goizean eta baita arratsaldean ere, jende ugari ospatu zuen Aitzorrotz Eguna.

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ESKORIATZA**
- Udaletxea 943 71 44 07
 - Udal bulegoak 943 71 45 32
 - Udaltzaingoa 943 71 44 07
 - Euskaltegia 943 79 21 68
 - Kultura etxea 943 71 46 88
 - Gizarte laguntzailea 943 71 31 36
 - Kirol etxea 943 71 53 28
 - Liburutegia 943 71 31 35
 - Luis Eceiza 943 71 53 56
 - Jose Arana Almen Ikastola 943 71 44 86
 - Almen 943 71 49 07
 - Museo Eskola 943 71 54 53
 - Axtroki 943 71 40 77
 - HUHEZI 943 71 41 57
 - Osakidetza 943 71 44 52
 - Telesko 943 71 49 17
 - Taxiak 943 71 40 59

BESTELAKOAK

- Eskualde ospitalea (Arrasate) 943 00 53 00
- Gurutze Gorria (Bergara) 943 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 943 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 30
- PESA (Arrasate) 902 10 12 10
- Larrialdiak (Arrasate) 943 77 10 43
- SOS Deiak 112

OHARRAK

HITZALDIA

Gaur, 18:00etan, Amuskak antolatuta *Al otro lado de la cama* filma emango dute kultura etxean. Ondoren, horri buruzko solasaldia egingo dute eta amaitzeko, puntxa egongo da.

HITZALDIA

Maiatzaren 13an, *Jesusen Sarrera gaixo eta urrunduena* hitzaldia egingo da, 19:30ean, kultura etxean, Parrokiako Osasun Pastoralak antolatuta.

SENDABELARREN IKASTAROA

Sendabelarren bigarren eskola emango dute martitzenean, hilak 11. Kultura etxean izango da, 18:00etatik 20:00etara.

AXTROKIRENAGENDA

RAFA RUEDA

Maiatzaren 14an, egubakoitzan, Rafa Ruedak kontzertua eskainiko du Eskoriatzako gaztetxean, 23:00etan. Sarrera, 3 euro.



Erramun Martikorenaren doinu lasaiak

Egubakoitzean aritu zen Erramun Martikorena herriko kiroldogian. Iparralde bertan egitasmoaren barruko kontzertuan 170 bat lagun egon ziren, eta euskal giroaz gozatzeko aukera izan zuten entzuleek. Abesti ezagun asko jo zituen baigorriarrak Mixel Ducau gitarra jotzailearen laguntzarekin. Kolore urdineko fokuek argizatuta, Xalbadorren bertsoak eta Xabier Leteren Xalbadorren heriotzean abestiak entzun ziren kiroldogian egubakoitzean.

LABUR

San Juan Txiki ermitako eguna zapatuan

Bihar, zapatua, Kurtzebarri magalean dagoen San Juan Txiki ermitako eguna egingo dute. Eguraldi ona eginez gero meza izango da 11:00etan ermitan. Gero, salda eta txorizoa banatuko dituzte. Eguraldiak laguntzen ez badu, Mendiolan egingo dituzte ospakizunak. Aspalditik ospatzen da San Juan Txiki eguna. Oso giro ona egoten dela adierazi digute antolatzaileek, baina batez ere, auzoko jendea joaten da. Eskoriatzarrak animatu nahi dituzte bertara.

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA
Informa zaitetz!

Model-in tratamenduak
Zelulitisa eta gizentasuna: horiekin bukatzeko osagaiak dauzkagu **Zelulitisari STOP!**

bedardenda
Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

UDAL AURREKONTUA/ Bigarren inbertsio handiena herri antolaketa eta kudeaketara bideratuko da

Onartu dute aurtengo udal aurrekontua, eta zenbait inbertsio finkatu dituzte

Z.V.M.

Apirilean onartu zuten 2004ko udal aurrekontua. Inbertsioak ere finkatu dituzte, eta diru gehien Gatz Museora bideratuko dute. Ureztaketa-hartunek, Indianoen etxea berritzea eta Olaundik herrirako bidea egitea dira Udalak egin gura dituen zenbait lan.

Duela bi aste onartu zuten 2004ko aurrekontua Leintz Gatzagan. 419.036 euro da. Zati bat inbertsioetarako da, eta dagoeneko finkatu dituzte batzuk.

INBERTSIO HANDIENAK

Aurtengo inbertsioetako diru zati handi bat Gatz Museora bideratuko dute: 30.000 euro, hain zuzen ere. Herrira jende asko erakartzen duen museoa da hori, eta bertan zenbait lan egingo dituzte. Besteak beste, gatz fabrikako teilatua konpontzeko bideratuko dute aipatutako dirua.

Hirigintza antolaketa eta kudeaketak 24.000 euroko inbertsioa izango du. Hirugarren inbertsio handiena ur eta gasaren hornikuntza sarearendako izango da. Hiri-gasa sartzeko asmoa dute la adierazi digute udal ordezkariak. Hemendik gutxira batzarrara egin eta zisterna kopurua zehaztu gura dute.

Ura goiko ur-biltegitik herriraino jaistea da beste egitasmo bat; horrela, ureztaketa-hartune bat jarriko dute herrian bertan.



Gatz Museora bideratuko dute inbertsioen diru kopuru handiena.

2004rako gastuak

Ondasun arrunten gastuak
186.844,73 €

Pertsonal gastuak
91.403,38 €

Transferentzia arruntak
21.554 €

Ohiko gastuak
299.802 €

UDAL AURREKONTU OSOA
419.036 €

Inbertsio aipagarrienak

Gatz Museoa 30.000 €

Hirigintza antolaketa eta gestioa
24.000 €

Ur eta gasaren hornikuntza sarea
15.000 €

Udal Pilotalekuko inbertsioak
11.000 €

Baserrietako postontziak 6.300 €

Proiektuak 6.000 €

Beste batzuk 23.400 €

GUZTIRA 115.700 €

Garrantzitsua da, suteren bat gertatuz gero erraztasun handiagoa izango dute-eta sua itzaltzeko.

Udal Pilotalekuari dagokionez, goiko aldea itxi egin gura dute. Hego haizea dabilenean zikinkeria ugari sartzen da bertatik pilotalekura. Hori ekiditeko egin gura dute lana. Gainera, armari bat jartzeko asmoari buruz hitz egin da. 11.000 euro bideratuko dira lanok egiteko.

BESTE BATZUK

Udalak diru kopuru handi bat erabiliko du herriko beharrak asetzeko. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, bulego-artxi-boen hornitzea eta udal ondasunen inbentarioaren gaurkotzea. Lehenengora 3.000 euro eta bigarreneara 3.600 euro bideratuko dira aurrekontuaren arabera.

Turismo Bulegoak eta Labidea dendak ere jasoko dute dirua, inbertsioaren bigarren fasea egikaritzeko, hain zuzen ere.

Lurrekin zerikusia duten bi egitasmo egikaritu dituzte Udalak aurtengo aurrekontuarekin: lurren erosketa bata; baserrietarako sarbideak hobetzea bestea.

Bestalde, Olaun auzotik Gatzagara doan biderik ez dagoenez, bide bat egin gura dute han, biak lotzeko.

Segurtasunari ere erreparatu diote aurrekontua osatzeko orduan. Eraikin publikoetan segurtasun sistemak jartzeko asmoz, 4.500 euro inbertituko ditu Gatzagako Udalak horretan.

LABUR

Bost zauritu astelehenean auto istripuan

Astelehenean, hilak 3, beste auto istripu bat izan zen Eskoriatza eta Gatzaga artean. Bi autok jo zuten elkar, eta guztira bost zauritu izan ziren. Istripuaren ondorioz, 14:15etik 16:00ak arte Gatzagatik Eskoriatza bitarteko bidea itxita egon zen.

Peugeot 306 batek eta Land Rover batek egin zuten talka astelehenean. Bost zauritue-tatik bi bergararrak dira; 70 eta 68 urte dituzte. Beste hirurak, aldiz, Gasteizkoak dira, 26, 29 eta 56 urtekoak.

Bizkai aldera egingo dute irteera GURELekoek

Gatzagako guraso elkarteak, GURELeke, irteera antolatu du Bizkaira datorren ekainaren 4tik 6ra. Karrantza aldera joango dira herriko 34 bat lagun. Turtzioz herrixkoko Armañon aterpetxean hartuko dute atseden.

Hiru eguneko txangoan, kobazuloak ikusiko dituzte, eta El Karpin Parke Naturalan dagoen Bizkaiko Dinosauro Animatronikoen Parkera ere joango dira. Eguraldi ona eginez gero, mendi ibilaldia egiteko asmoa eta Turtzioztik 15 kilometrora dagoen hondartza batera joango direla adierazi digute GUREL elkarteek.

Beste obus bat aurkitu zuten apirilaren 28an

Aurreko asteko eguaztenean, apirilak 28, Eskoriatzako basozainak obus bat aurkitu zuten herrian. Gerra denborako leherkaria da, eta ez da lehenengo aldia horrelako bat aurkitzen dutena.

Hiruerreketa inguruan zenbait arbola ari ziren landatzen apirilaren 28an. Lurra mugitu zutenean, gerra denborako obus bat agertu zen. Basozainak leherkaria kusi zuten, eta Herrizaingo Sailera deitu zuten, ez baitzekiten zein egoeratan zegoen leherkaria.

Ertzainek, Gatzagara gerturatu eta egin beharreko azterketa egin ondoren, obusa eramatea erabaki zuten. 70 zentimetro ditu aurkitutako obusak, eta adituen esanetan, egoera onean zegoen. Eguazten arratsaldean bertan eraman zuten Ertzaintzaren artezilariek leherkaria. Ez denez aurkitu duten lehenengoa, beste leherkariren bat egon daiteke Leintz Gatzagako lurretan galduta.

Sorginak emakume taldeak Leon aldera egingo du asteburu honetan bere urteroko bidaia

Z.V.M.

Urtero egiten duten bezala, aurtun ere autobusera igo eta toki berriak ezagutzera joango dira herriko 15 emakume. Sorginak taldea Leon aldera abiatuko da gaur, egubakoitza. Bisita kulturala egiteaz gain, euren arteko harremana estutzeko aprobetxatuko dute.

Aurtun ere bidaia antolatu du Sorginak taldeak. Gaur, egubakoitza irteera dira; Leon izango dute jomuga.

LEONERA BIDAIATUKO DUTE

Hamabost lagun abiatuko dira gaur Gatzela eta Leon aldera. Hamabost emakumek bertako aberastasun kulturalak ikusiko dituzte.

Iaz 20 lagun izan zirena bidaia egitera animatu zirenak. Asturias aldean egon ziren aurreko irteeran, eta hara joandakoen esane-



Iaz, Oviedo aldean ibili ziren Sorgina taldeko kideak, eta aurtun Leonen.

tan, denbora libre izateak bidaia lasaiagoa izatea ekarri zuen. Horregatik, aurtengoan ere horre-

la antolatu dute bidaia. Horrekin batera, giro polita izan zutela gaineratu digute.

Aurtun ere, talde txikia izanda, giro ona egongo dela uste dute sorginek. Katedrala bisitatuko dute, esaterako. 916. urtean Ordoño IIak bere errege-etxea katedrala egiteko utzi zuen. Beraz, historia handia duen eraikina bisitatuko dute, beste gauza askoren artean.

YOGA IKASTAROA

Bestalde, Sorginak emakume taldeak maiatzean zehar yoga ikastaroa egiten ari da. Sei lagun dabilta bertan. Kultura etxean egiten dituzte saioak.

Modan dago gure gizartean yoga eta lasaitzeko ekialdeko beselako teknikak. Gatzagara ere iritsi da, eta probatu dutenek, oso gustura dabilzala adierazi digute. Laurogeiko hamarkadan gorputz landu eta gihartsuak nagusitu ziren; hurrengo hamarkadan ekialdeko praktikak eta orekaren bila buruko ariketak bultzatzen dituzten teknikak.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



ILUNTZEAN

Erramun Martikorena solaskide


Eguenean, maiatzaren 13an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



Ikusitekoa!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaitz



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



**ALTO DEBA
MARGOAK**

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel. eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25



**J.SANCHEZ
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETAK
Tel. eta faxe: 943 79 69 32. Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETAK
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tel.- Faxe: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tel.-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Otalora 14 ARETXABALETAK
Tel.: 943 79 16 10

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro 14, behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasak
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETAK
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK




Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasak
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIAK



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17 eta 25
*Tel.: 943 79 28 41 *Faxe: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETAK
Telefona eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETAK
ITURGINTZA

Durana 16 Tel.: 943 79 17 53
ARETXABALETAK

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASAK
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETAK

943 793 187